Kea behelainopean bezala

HARKAITZ CANO

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1994 Harkaitz Cano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1994ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Kea behelainopean bezala

Gereziondo bat hazten ari dun nire zainetan
benazko entseiu hodi matxuratuak bihurtuz
takigrafiatu dizkinate musuak hire bularretan
agortu dun hondarra
sahara gobi eta basamortu gehiago ere
tatuatu dizkinate jainkoen bizkarretan
itsasoa aho bakarreko mintzagi
obenkeek ezin eutsi lain bihotzari tenk
biriketako naufragioan
sistoleak eta diastoleak garabiak kezko
uhildo lurrunak
milaka postale heldu ditun mundu osotik
ez al dun gogoratzen
hilak heriotza oso bat betetzen din gaur
kandelak itzaliak dizkin
desio bat eskatzea zilegi badun
ez dinat aingeru errudunen hegorik nahi
uhildo lurrunetan aske
zebilen nire arteriatan hire kresala
kea behelainopean bezala

gabian bukatzen dun iparra gereziondoan
hasten ditun nire zainak

Bustiz

Euriak ez zinan bustitzen eta
berunezko telefonoak bezala ibiltzen hunan jendea
gaur kaleak luzatu egin ditun malenkoniaren
kateetara damuturik
behar bada bilatu gabeko bakardadeen biderkatzez
behar bada maitasuna maiztasunarekin
ezin uztartzez edo
ezin ahoskatuz keaz ezin
bustiz bustiz bustiz putzuak
zer egingo lukete maiteminduek zaparradarik ez
balego
lehen behintzat aterkirik gabe baino
ezin izan gintezkenan benazko etzidamuko uhinetan
hemen beste itsaso bat hasten dun urrutiago
baina hik dion ezer ez dela jada berdin
ordea kaleak ez ditun sekula aldatzen izenak apika
higa daitezke berunezko telefonoak bezala
ibiltzeagatik
kale alaienak kale hutsak ditun
bustiz bustiz bustiz putzuak
gaztain erreberrien usaina begiak ere erre ditzaken

inoiz loratuko ez diren jardin ertzetan
hemen itsaso ozenago bat hasten dun
ezkaratzaren ondoan hogeitazortzi zigarrokin
maitaleak beti daude zain peora ilunetan
behin egindakoa mila eta seirehun aldiz
pareta hezeegietan bermaturik ezker oina
bustiz bustiz bustiz putzuak ezin
belarria lerratuz eskaileren egur naufragora
berunaren pausoak bereganatuak dizkin
amorante hilen urratsak suma ezinak
kate alaienak kate hautsiak
orain guardasolak ditun nahiago
zenbat aldatu haizen
brujula askotako distantzia batean

Kaio baten jaiotza erratua

Zu jaio zinen udazkenean ere
gurmak inausi zituen desioaren hondarrak
hostoek izenik gabe jarraitzen zioten heriotzari
eta jainkoak udazkenero bezala
bildu ziren munduratu beharrekoen zerrenda
osatzeko
beren kaierak eta lapitzak eskuratuz
eseri ziren iturriz betetako parke hartan
euria ari zuen deblauki eta
obispoen sotana luzeak urratu behar izan zituzten
aterki gehiago egiteko
eta eztabaida luzeen ondoren zuri kaio jaiotzea
egokitu zitzaizun kaio jaio bataio
baina udazken hura oso euritsua izan zen
jainkoren bati eztarria erlastu zitzaion
ortozik ibiltzeagatik istilen gainean
kaio jaiotzea egokitu zitzaizun baina
euri jasa izugarria izan zen urte hartan
pupitreetako urjauziek
jainkoen kaieran tinta gorriz apuntatu zerrendak
ezabatu zituzten

honat zentozela hegoak asko busti zitzaizkizun
mela mela zeuden hiri guztietako teilatuak eta
blai blai bai zure ezpainak gorritu zitzaizkizun
hotzaz
bi bular ematu ziren zure hegapeetan
kabi obala gorpuztu zitzaizun sexua ehuntzera
zu jaio zinen udazkenean
irratietan etxetik ez irtetea
gomendatzen zuten gizon bibotedunek
postaletako katedralak belztu egin ziren
hau euritea hau euritea hau
bukatuko al da balinbatte balinbatte
baina euria bota eta bota baziren mila tristura mota
eta inor konturatu ez zen arren
zure hegoak bi besotan bilakatu ziren
zu jaio zinen udazkenean jendeak leiho ondoan
egiten zuen lo eta atertuko al du atertuko al du
balinbatte atertuko al du balinbatte
errepikatzen zuen putzuak handitu ahala begiak
leher
kaio jaio behar zenuen baina
emakume bihurtu zinen halabeharrez
udazken hartan euri gehiegi egin zuelako
ibai guztiek gainezka egin zutelako

kaio jaio behar zenuela baina
emakume jaio zinen balinbatte balinbatte
eta geroztik biluztasuna zure mingainetan bizi da
balinbatte uholdearen kurbetako bustiduretan
eta zure begiek oraindik isilpean gordetzen dituzte
jaio zinen udazken hartan isuri ez zenituen malkoak

Haurtzaroa I

Haurtzaro deritzon auzo hau utzi nuenean
bakarrik eta harro klarionaz
eraikitzen nituen sufrearen murrailak
pentsatzen nuen hiri esker gaiztokoan
neu bakarrik zahartuko nintzela
neu izango nintzela patiora eroritako esteka bakarra
neu amodioaren aldarea jelaz adornatuko zuen
bakarra
pentsatzen nuen auzo atzean utziak
txuri beltzezko filme haiek bezalakoak zirela
pentsatzen nuen kale izateko txikiegiak ziren kale
haietan alargunek espaloiak luzatzen jarraituren
zutela
diskagailu euritsuen soinuaz auzo hura sekula
ez zela gereziak bezala sarrailarik bako atea izanen
pentsatzen nuen haiek elkarren eskutik
kausituko zutela ausaz zorionaren odol arrastoa
niretzat istil atzenduak baino ez zirela geratuko
Ordea itzulbidean datorkit gogora
zaunkaka daramatela patioetatik denbora
ikusten ditut estrata bazterreko tamarizak ere

beren baitan makurtzen zerbaiten bila
ni bezalaxe nire auzoak
bihurtuz izan zirenaren linburtze
eta horrek pena piska bat ere ematen dit
eta ez dakit zertarako
miatzen ditudan behin eta berriz poltsikoak
zerbait erori izan balitzait bezala
estolda zulorantz doan malko erretenean

Haurtzaroa II

(Mundua ibai bat zen
uholdeetan behien marruak eta upa herdoilduak
helarazten zituena
oroiminez eta amarantozko hostoz josi ibaia
eta bi ibaiertz arratoiez beteak eta zubi bat
eta ni haur bat baloi gorri batekin
neguan zaldiak maite zituen haurra)

Haurtzaroaren koordenadetatik
ez nintzen ustez mugitu baina negu hartan
katu guztiek zure aurpegia zutela ikusteak
izutu egin ninduen eta ausaz horregatik
zubiaren bestaldean aurkitu nuen tupustean
neure burua zaramaren artean haztamuka ordezko
hortzadura baten bila
Lo nengoela eraman egingo ninduten
inurriek errazten zuten zortzigarren itsaso batera
loa eragiten duten tren urdinetan
edo ferrarik gabeko zaldi batean ez dakit ziur eguna
baina haurtzaroa utzi nuen katuetan zure aurpegia
ikusten hasi nintzenean

Bestaldean geratu zen haurra
irudi bat egiteko erabiltzen den moldearen gisako
ispiluetako itzaletara doi bihurtua
sagar gorri batekin

Ibai ertzera jaitsi zen behin haurra
eta oroiminez zipristindua
baloi zikina eskuratzean
ikusi ninduen lelo antzera keinuka
une batez harriturik begiratzen
bere iraganaren edo bere etorkizunaren mataza
kinada arrotz baten baitan balego bezala
ostera gero lagunei dei eginez
lasterka urrundu zen zalditegi zaharrerantz
Uztartzen gintuen ibaiak
hostoak bete oroimin zekartzan
harresi gaindiezina irudi
eta izan nintzen haurrak
ez zituen nire arratoi begiak ezagutzen

(Mundua ibai bat zen
uholdeetan behi hilak eta parthenoi herdoilduak
helarazten zituena
arratoien malkorik gabe bere burua arrastaka

zeraman ibaia
Zubi eroriaren harriez
sehaska baten gainean
eraikitzen zuten poliki nire hilobia)

Ezpainetarako bidean I

Uso guztiak ez dira zuriak
grisera hiritartu dira zenbait
eta latoizko labana kamutsez
nekez hauts daiteke
isiltasunaren harizpia amodioaren
lur eremu hesitu gabekoetan

Zurikeriatan ote dabiltza usoak
grisaren errotarria ehotzen
Iturri ofizialek beren susmoa
beren kezka beren lo egin ezina adierazi dute
klarionazko zirkuluen barruan kokatu
hiriko kabina gorrien gainetan
heineken botila hutsak agertzen direla-ta

Ezpainetarako bidean II

Isiltasunak puztu zituen gure ametsak
izua goialdeko apaletako liburuetan baino
agertzen ez zen asmakeria
tirada murritzeko lehen edizio apala
Ke arrastorik uzten ez zuten lokomotora haiek
neurtu zuten etsipenaren luzera
dinamorik bortitzenek hesitu argia
Garai hartan oraindik
amodio gutunak bidaltzen genizkion elkarri
ke beilak malgutzen zuen gure etsipena
baina usoek zure eta nire kaleen izenak trukatu
eta arratsa zomorroz betetzen zen bitartean
norberak idatzitakoak bueltatzen zizkigun
garai batean postari izandako bele zaharrak

Norbaitek inoiz

Baldin norbaitek inoiz teilatu itsusi batzu
marraztuko balitu leihoaz bestalde
mareak behera egingo balu iratzargailuaren
orratzetan
kedarretan baino ezin imajinaturik nire ostatua
egunsentiaren helizeak
itsuen begietan baino biziko ez balira
bizitzaren esku anorexiara kateatzen gaituen
ohitura
baldin zure ahotsak inoiz erdietsiko balu
gramofono pare bateko pisu atomikoa
erlojuen ibaiertz baztertuak oroituko banitu
hiriko orratzak denbora guztia karreatzeko
eskorga geldiak balira
edo josteko behebarruak itsuak
elkar entzun gabe musukatuko balira
kedarretan baino ezin imajinaturik nire ostatua
baldin norbaitek inoiz teilatu itsusi batzu
marraztuko balitu leihoaz honantz

Igel burgoia

Igela paseatzera irten da
triste dago lanik gabe
ilargirik gabe eta horregatik
urmahela utziz ur ezagunak eta
lurrin berde ezagunak utziz
igel papartsua paseatzera irten da
izarren uzta jasotzera gauak maindire beltzak
tolesterako
ez dakusa igelak ilargirik kearen ertz bakanetan
baina halere paseatzera irten da igel baldarra
igel mingainluzea luzemingaina igela
Eta igel guztien artean paseatzera irten den
bakarrak
bi izar hori nimiño ikusten ditu bakarrik
horizonte bihurrian
bi ipurtargi paralelo datoz beregana
bi kandela borobil bi bihi sutsu
barandilak herdoilduta daude parajeotan kontuz ibili
igela
esan zion behin bere amak baina halere
paseatzera irten da begi handidun igela igel

barregarria
igel saltari pottoloa igel pailazoa igelak
bi izar paralelo hori haiek
gerturatzen ari direla suma dezake
eta ez direla nimiño
eta ez direla kandela biribil
bi eguzki itsutzaile direla suma dezake
eta igelari bururatzen zaio
arraioa izan dizkik bikiak laranjondoak
eta paseatzera irten den igel inozoari burukomina datorkio
eta ez du besterik pentsatzeko astirik

honela itzultzen dizkigu egunsentiaren grisaiak
gauak akabatutako printze klandestinoak
kearen mugak igaro ezinean
autopista asfaltatu berrietako bazterretan

Zubiak

Zuk biak hartzen dituzu begiak
zuk biak dituzu elkartzen
zubiak beti hojalatazkoak koldarrentzat 123
aritmetikak aldatzen ditu zubien izenak auskalo
zergatik jartzen dituzten iltzeak goizeroko legamian
zubiak beti zure ezpainek bezala bi bailara 876
elkartzen ditu bi txunku urruntzenago
iltzaturik alaitasunean 456
eta malurrak bezala elurrak 145 berdin izotz
gaitzake
ni eta zu bi-
ak beti hojalatazkoak koldarrentzat
batzuetan hojalatazkoak ematen duten arren
hojalatazkoak beti
zdravitsa topa egin dezagun
banatzen gaituzten zubiengatik

Lau pareten artetiko portreta

Hormaz bestaldeko zuhaitzak ebaki dituzte
gure pairamena handiagoa izan dadin
gorritu dira polboraren masailak
Orain kaio bihurtzen diren sarrailak bakarrik
ikus ditzakegu orratzez zulatuak orobatean
eta kaioek hegapeetan dakartzaten giltza hautsiak
Zure bekainak Zure begiak

Hormaz bestaldeko telefono zutabeak ebaki dituzte
ijitoek arropak non zabaldurik izan ez dezaten
gure deusezentzutea handiagoa izan dadin
Hogeitazortzi izen dituzten mitxeletek
lehen hojalatazko zubietan bezala orain
gure bederatzi milimetrotako ogi papurretan
tustatzen dute falta zaien burdina
hilerokoak kendu dien zilarra konpentsatzeko

Hormaz bestalde azarotuz darrai urriak
hiruterdietako urkabean geldirik orratzak

nola geldirik hilerokoa duten mitxeleten ganibetak
biktima odolustuen berunezko gibeletan

Eskusoinu lurperatu bat topatu dute patioan
ezpain tolesdurak hautseztatuak zeuzkan
eta atxikirik zituen jabearen eskuak

Leiho batek amorante galduari

Honela esan nizun euria ari zuenez
zidarrolaz gaua ez zaitut sekula ahaztuko
keak keari bezala jarraituko dizut
berdin zait teilatuetan edo kaleetan
nire bizitza osatzen duten harri trokoetan
euria etorkin urteak kolpatzera itzultzen den bezala
itzuliko da nire beira okiletara zure aurpegia
non zaldien entzumena hazbeteka urratzen
ez dago inor kaleotan nik bezain ondo ezagutzen
duenik
kriseiluak pizten direneko ordua
isuritako malko eta odolaren lekuko aienaezinak
eta ke-zulo debekatuetako ezpainek legez
iraunen dute zure hitz kordek ere nire ukimenean
aurpegian utzi zenizkidan matel izoztuak
jasoko ditut beti oroitzaren tolesduretan
krimenaren aztarna artxibatuak bailiran
nire biriketako erlauntzek zure
camelen kea gordeko dute beti
Jakin banekien ez zinela niretzat biluzten

ez zirela izango betirakoak zure
bularrek nire bizkarrean utzi zuloak
tabakoa egunsentiaren aurretik agortzen
zitzaizulako
bakarrik uzten ninduzulako goiza berpizterako
edo damutzen naizelako zalantzen eztanda hartaz
baina ez da nire errua euririk ari ez duenez
inork ezin izan die hesirik jarri
nire bihotzean hektareaka hedatzen ari diren
basamortuei
zure izena ahantzi nuen lehenbizi zidarrolaz
gaua eta argizariaren pausoak zure
aurpegia triangelu ezpaindun bihurtuz
lurrunak erein zuen ahanztura begi kubikoetan
Orain irekita uzten naute gau askotan
blues for Pablo ez dute aspaldi jarri
pentsa gaur ez naiz zure
liztor begiez ere akordatzen
nolakoak ote dira zure ostatu berriko leihoak?
Errudun guztien auto beltzean joan zinenetik
mirotzek eskukadaka biltzen dituzte
harri trokoetako kriseiluen zainak
ez naute entretenitzen patiora erortzen diren
galtzerdiek eta estekek zidarrolaz

aspaldi ez da nire ispiluetan inor
zu bezain luzaro pausatu kalean ez dira ohartzen
leiho bortxatuaren oihuaz
eta negar egiten dut gibelateak biluztuz
arrotz batek arropak zabaltzen dituen bakoitzean

Iparrak eta orratzak

Norantza dugu gure etsaia
beti suntsi gaitzake mugaz haraindiko muga batean
zulo kardinalerantz doan sugea da norantza
bide eragozle nahasle uharretarainokoa
hondoratuko gara iparra bilatzean
hobe ibiltzea galdurik beti
edo gandurik
hegoak behar ditu iparrak
norantzak ez al du
bi hasperenen arteko distantzia laburrenaren antza
lanbroaren ebakietan amiltzea hobe
areto piano gozagaitzen kordazko zeldak hobe
zure azalaren kartografia ezkutatzen duen
kerosenozko kriseilua den norantza topatzea baino
Bidea aurkitzen badugu bizitza
hegaberatuko dugu
galduko ditugu elurrez gaztetutako kaleak
eta kearen gainean eraiki genituen ostatuak
ez dugu gaindituko hegorik gabe iparra
ez legenar botilarik gabe gauaren berun bolada
hegoak behar ditu iparrak

kaleen izenak ez bereiztea zer den
duela milaka urte ikasi zuten bihotzek
ziba norabidegabetuak zirela
ahaz ditzagun emakumeen gorputzak josteko
orratzak
egunsentia ezagutzen duten hontzak diren zauriak
ahaztu insomnioa eta absent zer diren
hegoak behar ditu iparrak
duela milaka urte ikasi zuen
bihotz sabaietan lo ezak teilatuak zenbatuz
hutsik dauden oheak baliatzen dituztela arratoiek
biderkatzeko noraeza zabortegietan
hegoak behar ditu iparrak

Idatz ezazu amodioaz eta itxaropenaz
eta nik idatzi egiten dut
hiria lorez basitu itsasoa baino ez da
lore pozoinduak dira baina finean loreak
ez dago leran ezusteko begiradak ospatuz
esperantzaren izenean loreak banatzea bezalakorik
Zaila zaigu gure nenufareetatik kanpo galdu
bezpera igelei barkamena eskatzea

Idatz ezazu gure itsasontziaren uhildo erratuaz
eta nik idatzi egiten dut
itsasoa hiriz basitu lorea baino ez da
hondarrezko lorea baina finean lorea
eta ez dago hondarrean utzitakoa ahaztea
bezalakorik
lore ezezagunetik iragazia den
itsasoaren lupuaz itsasoaren pozoinaz

Idatz ezazu heriotzaz esaten didate
eta nik luma uzten dut
seinalatzen diet lore ihartua hiri hondartua

itsas nekatua
seinalatzen dizkiet gelako lau apalak
betetzen dituzten kaiera larrutuak
esaten diet haizearen harrapaketan olatuak dira azpi
jakina da mitxeletek begi
bakarra dutela halaber
ez dut topatu gezia jaurtikitzeko arkurik
ez gerezia jasotzekorik ere
zitroi kolorekoa ematen du hemendik arratsero
itsasoak
eta hasieran leiho dirudien argazki sepia hori
hondarrezko ispilua da baina finean lorea

No vacancies left

Diote zeruko hostal izarrik bakoan no vacancies left
dioen karteltxo bat zintzilikatu dutela
jada mila eta seirehun errugabeko ilara dagoela
aingeruen hego berziklaezinek hautsa biltzen dutela
diote ingelesezko hitzak ere bortxaz hustutako
gau klubak direla oraindik
eta heriotzak beste zapore bat hartu duela
gereziena diote
miles davis dagoela infernuan I thought about you
bere tronpetak galdara batean duela
erresonantzia kaxa eta baita ere diote
infernuaren sarreran irribarre egiten jarri
dituztela kale samurretako emakumeak
strawberry films eta wild cherry diote
gonbidatuei bonbila bakarreko gelak erakutsi
eta bonbila adina musu emanez hartzekodun berriei

Kezko seinaleak

Nondik ote dator aniztua kea?
Oherik ez dagoenetik sukaldeetako labeetan
egiten da hiri honetan amodioa
Leiho itxitik merkantziak sartuz behelainoarekin
zure ahotsa apartatu nuen kafea hoztu ez zedin
Gurpilak karkabaka trenetik
harrien baitatik ateratzen zen isiltasuna
egunak bere alanbikeak zabaldu ahala
Aurpegi errea zekarten goizeko lehen biztanleek
harlauza gainetan lerraturik
kexu ziren antzokiak bezain hutsik botilak
jendea presaka zebilen gauari norbaitek
semaforo guztiak ostu balizkio lez
Biharamuna maingu baten arrastoa zen
bizitza den espaloi elurrez ezkutatuan

Nondik ote dator aniztua kea?
Oherik ez dagoenetik sukaldeetako labeetan
egiten da hiri honetan amodioa

Poema kronikoa I

Seguraski ez zenuen irakurriko
izkina batean agertu da berria
erdi ezkutaturiko zoko deslai batean
letra kurtsiba ulergaitzez
eta ze meritu dauka bizitzak sufrimendurik gabe?
esango zenuke zeuk irakurrita ere orria pasatuz
Oreinek lasai dakite itxaroten herioren azken musua
ez dute inoiz arazorik izan hiltzeko garaian
bai ordea ispiluek bai ordea beren izena
parkeko aulki orlegienetan ahaztuta utzi zutenek
Há una gota de sangue em cada poema
seguraski ez zenuen irakurriko
zaila da halakorik bereiztea egunkariak erabat
gorriz
inprimaturik datozenetan
eta halere abezedario orok hiribide guztiek
garamatzate gaur bere biloba guztiak
pozoindu dituen amonaren plaza biribilera
hagitzez hobe genuke gure itzala urkatuz
geure hilobiak tulipan beltzez ornatzea
baina gaur egun ez da inor amodioagatik suizidatzen

ezta armiarmak irensten dituen
estolda zuloa den ilargia ere

Seguraski ez zenuen irakurriko
gaur ez baita poemarik kabitzen zure leihoan
baina zurbilik erabat eta hilotz
eskale bat aurkitu dute hilik zisneen txabolan
gorputz izateari utzita egurrezko azalez
beso bat tinko omen zeukan oraindik
ilargi erruduna seinalatuz

Poema kronikoa II

Egunkaririk atera ez zen asteazken hartan
etorkizuneko egutegietan aspaldi
igandeko gehigarriak harribitxi ziren buhameentzat
asteazken hartan nehoiz baino azkenago nehoiz
baino
eskale gehiago agertu ziren gorpu
new yorkeko zelai neoizkoetan asteazken hartan
mila eta seirehun kazetari gartzelaratu zituzten
gogaketaz eta gaukotasunez jokatu ei zutelako eta
luto zuriz bete ziren ausentziaren hemerotekak
Anartean dena hersten zen teilatuen baitan
albisteak hormetan lepamozturik agertu ziren
hegoei ezin eraginik kazeta irekiak
kaio lokartuak lez erortzen ziren etxeorratzetatik
airean meheagotuz ugaltzen ziren kaioak
oraindik jasotzeke anitz hilotz
Hildakoen bekain izoztuak ere abiatu ezinean kaio
disekatuak zirela esango luke edonork
eta harriturik zeuden kostaldekoak ez baitzuten
inoiz ziburu kerrinkarik gabeko kaiorik ikusi
Urrutiegi sumo zen sute hura ez zen ogi labeetakoa

okinek elurraz egin zuten orea
egunsentia gartzelatako zebra leihoetatik zelatan
eskularruak bisutsak lurperatuak
berrogeitamar maluta penike batekoak ezina da
espaloiak bereiztea botila hutsengatik baino
boxeolariak ere kronika desleituen gisan urruntzen
aizto zauriak bailiran irekiz kaleak

Kezko igitaiak

Nola
behatz orbainduaren
ildo zuzen seinalatuan barrena
atzazalak kiribiltzen diren
hala kiribiltzen dira nire garun lehortuan
suz goritutako igitaiak
amodioaren igitaia
bizitza edo heriotzaren igitaia
zer otearen igitaia
igitai gehiegi bihotz barrunbeetan
dauzkagun kilkerrak erailtzeko
errazegia baita negar egitea
negarra aurrez irekitako ildoetan barrena doanean
sufrimendua azaleko aitzakia bihurturik
itxurazkoa gure dolua
malkoak benetakoak direnean
kezko urjauziak sortzen diren moduan
sortuz zingira uherrak
hanka laburregiak dituen
krokodiloaren pausoetara

Birigarro erraldoiak

Apur bat argiagoa banintz
esango nizuke
suizidek bota egingo naiz
esaten duteneko naturaltasun berdinaz
aspaldi honetan galdua dudala hirietara heltzean
ezer baino lehen eraikuntza altuena
bisitatzeko ohitura osasungarria
nire ametsetan jada ez duzula bisaia ainubea baino
galerazia dagoela amodio poemak eta maxakanak
kale hauetan destilatzea
batazbestekoaren gainetikoa dela
nire eguneroko kearen dosia
edo badakizu
harriek ez dute oraindik negar egiten ikasi
edo begira
suaren ahotsa da kearen ereserkia
ez al dirudi zerumugak haur batek
treneko leihoan utzitako lurruna
ez al dirudite pinudi etzanek
etorkizuneko zerraldo ola

ez al dirudite pinudi zutunek birigarro
kaiola
otoi zaude isilik
non ikusi dituzu zuk birigarro erraldoiak

Isiltasunaren bastidoreetan

Igitaiak ezpain-txunku margotuetan
Gaur ez dago inor isiltasunaren bastidoreetan
eta ate eroriek ukatzen dituzte etxekalteetako
begiak
Gaur ezeztapen bat da etorkizuna
kafearen kondarra hondoan zuen kikera
ez da zainetan odol gehiegi zuelako lehertu
gaur inor ez da ausartzen zifra bat botatzera
Ez dago zehatz jakiterik goizeko zenbaketara arte
Iturri ofizialetatik gerezi ura baino ez dator
dena joango ote da erretena legez gaur
ez ote dira klandestinoak suaren etenak?
Beha daude teilaturik gabeko leihotik
torax geletako kaioletatik
Ez dago zehatz jakiterik goizeko zenbaketara arte
Auskalo zenbat aingeru
gillotinatu dituzten bart

Sotanadun nimiñoak bailiran ubidean
ihesi doazen iñurri mehatxatuek ez dute ulertzen

sufragio unibertsalaz

Ez ez da kea ibaiak dakarren hura

Gaur umeak dabiltza hildakoen zapatei lokarriak kentzen

Zerua gorri dago infernuz tiñaturik

Estazio berri bat eraiki dute gure gaztetasunaz
Tren guztiak gainezka datoz marruz eta zimelduz
lehen zen zoroetxearen oroigarriak dira
trenbideko harriak
arrotza zait andenetako usaina
psikiatrikoetako hortzadurez osatuak bideko
marrazak
eromena baino amaigabeagoak diruditenak
gure bizitzak ez du bidaiarekin antzik batere
ez bada berunezko bagoietan
Maleta itoak saldoka agertzen dira ur azalera
gure heriotzak ez du bidaiarekin antzik batere
ez bada bidaiariak nahita ahaztu bide zorroetan
beste edozer esan nezaken zinez
zitroi kolorekoa ematen du hemendik arratsero
itsasoak

Hor itsasondoan dauden orube eskerga horietan diote eraikiko dituztela basamortu berriak munduaren bihotza habitatzeko

Jaioberriaren begiak

Nik ere maite ditut jaioberrien begiak
baina hil beharra dago
elurrak bakartiago egin dituen abenidak
diruditen jaioberrien begietan
ezina da kea gatibatzen duten kaiolekin akordatzea
maitasunari heldu nahi diogu baina
ezpainetako igitaietan beti aiher bera kulunkatzen
da
dastatu beharra dago pinudietako erretxina
zuhaiztiak alferrik galduko ez badira
zure hileroko arrazionamendu txartelean dauden
malko tantak alferrik galduko ez badira
busti beharra dago ezein herioren ibaiadarretan
zintzilikatzen diren gereziekin
azaroan hiltzea arazo izan daitekeen arren
busti beharra dago ezein herioren ibaiadarretan
ez pentsa nik ere maite ditut jaioberrien begiak
baina lastima litzateke kanposantuetako tranbia
horiak
desagertzea edo masusten isiltasun tantaka horiek
zuri ere kontatuko dizute noski mitxeleten gezurra

bizitzaren sedaxorroan bizi garela
eta sedaxorro hori puskatzean mitxeleta mataza
sortzen dela zomorro ilunetik
bai ez dakizu zenbat maite ditudan jaioberrien
begiak
kale elurrez gaztetuak batere maxakan ildorik
gabekoak
begi hain basamortu hain ohantze huts
baina hil beharra dago mitxeleta izan nahi duten
zomorroen ametsak beteko badira
gure aginpide kadukatuaz elikatuko dira horrela
eritetxeko pasilutik ikusten diren
pinudi demokratikoak

Izan zarete inoiz katuen kanposantuan?
Ez da harritzekoa
katuen eskelak ez dira egunkarietan azaltzen
baina katuen kanposantuak oso zabalak dira
edozein hilerri arrunt baino hamar bider
handiagoak gutxienez
geografia asko jakin behar da katu izateko
Katuen kanposantuetan metroan ibiltzen dira
txartelik gabe alargunak
eta mapak daude sarrera bakoitzean norberak
bere katuaren hilobiari loreak jar diezazkion
ilundu aurretik
katuen hilkutxak gereziondoen zuraz eginak dira
katu guztiak botak soinean hiltzen direla
gogorazten digu sarrerako idazpuruak
Guduetan jende asko galdu da egia
baina nork zenbatu ditu katu anarkisten hilotzak
zazpi aldiz biderkatuak
Lurpean trenek mustaxa atontzen dute
gillette marrazekin katuen igandeetan
pauloven zakurrak ateratzen dira paseatzera

katuen kanposantuan
kea ereinez gero basamortuak biltzen dira
Gauzak asko aldatu dira
lau aldiz hildako katuak sabiniarren akademiara
apuntatu zirenetik ingelesa ikastera
katuen kanposantuak zazpi probintzia ditu
erruz garestitu da hilobien akuratze tasa
eta estrata bat eskaini diote
erreboltaburu anarkistari
katuen kanposantuko auzunerik dotoreenean
Katuen kanposantuan
krisia dago langabezia eta loradenda bat non
arras merkeak diren san martin loreak
pozoinaren urrats itzaliak tustatzean
katuek badakite
heriotza bere buruaz beste egin nahian dabilela
eta halakoetan begiak hersten dituzte
Begiratu katuen hilobiak
garagardoak eraman zuen hura
beste hark berriz pipan bakarrik erretzen zuen
bere maitalea zortzigarren bizitza bat
ebasten harrapatu zuten
Baina alferrik da gehiago luzatzea
katuen hilerrian egon ez denak ezin

imajina dezake nola harramaska
egiten dion isiltasunak gauerdiari
Norbaitek pentsa dezake agian gezurra diodala
eskailerapean ezkutatzen direla katuak
ogi maluten bila goseak akabatzen
baina izan badira katuen kanposantuak
ni naiz katuen beilaria hemen bizi naiz
katu anarkista ospetsuena hil zuten estrata berean
Belarri zutunak eta buru ttipi harrituak
aspaldiko partez
elurra hasi du katuen kanposantuan

Batzuetan badakit buruan liliak
haziko balitzaizkit bezala hitz egiten
entzun
nork deslotu dizkio demokraziari zapatak
horrela edonor eror daiteke muturrez aurrera
zigarroen keak gutxienez
hiru harlauza betetzen dituenetan
jakin bazenute gure garaian
hiltzea eguneroko ogia zenean
guk ez genuen ogirik jaten
mailuaz sartu iltzeak baitzekartzan
legamiak
labeetan amodioa egitea errazegia zen
sugandilentzat
orain ikatzak ere propaganda egiten du
aulki elektrikoetan
igerri genuen arratoiek tangoari ahapeka hautsa
esaten ziotela
zizpa baten keak harlauza bakarra
okupatzen du gehienez jakin bazenute gure garaian

hiltzea eguneroko ogia zenean
guk ez genuen ogirik jaten

findus zoriona deskonjelatu besterik ez
bi minutu eta berrogei segundutan
gauza bati asko hurbiltzen zaion hura da
gauza horretatik urrutien dagoena
nork deslotu dizkio demokraziari zapatak
batzuetan ahaztu egiten ditut ganbarako
lorontzietan
hazten zaizkidan liliak
entzun
batzuetan ahaztu egiten ditut

Gereziak

Hemen ere lehen gereziak jaten genituen sarajevo
hemen ere lehen lau esku eta lau gerezi
zortzi amets eta hamasei urtetako neska bat baziren
eta keak gure oroimena zulatzen zuen
euriak quorumik gabeko egiten zituen arratsetan
baina gaur hamasei urtetako neska beltzaranak
galduak ditu hirugarren eta laugarren eskuak
berak zaintzen ditu gerezi banaka erauziak
gurasoen besoetatik sakailatu haurrak
bakoitzak bere anpoloia dauka bularrean
eta bular gaiztotuek ez diete parkean sokasaltoan
ibiltzen uzten kukutx eztula diote
harriek begirik ez ezta herriek ere
izotzaren maindireetan
herrena ez den herio baten zantzu ezabaezinak
Eta zer egiten zenuten ordu luze haietan
zakur trenkatuek ahausi egiten zuten bitartean?
galdetu zion urrunetik etorri
eta sekula gerezirik probatu ez zuen kazetariak
hamasei urtetako neska beltzaranari

—Abestu egiten genuen

eta bonbaketek eskailera naufragoak dardarazi
gauetan
odol errekek tantaka baino areago langarrak lez
ateen petik zoko guztiak blaitzen zituzten gau
horietan
txori eta adar hautsien zaratarik gabeko gauetan
arimaren zabortegietan igitaiez bidea irekiz
heriotzaren hesituretan uholdeek begiak kamustean
zer egiten zenuten infernuz gainezkatu gau
horietan?

Neska beltzaranak lurrera begiratuko zuen
(harriek begirik ez
ezta herriek ere)
eta gero begi gorrituez zerumugara
umeren batek bere hatz inuzenteez gerezi urguriak
lehertarazi zituen treneko konsignan
galdera hura luzeegia zen luzeegiak sufrearen
apetak

—Gau horietan oso ozen abesten genuen

Benetan nik ezezagun bat neukan sarajevon
mostar gernika phom penh hiroshima bagdaden bezala
nire ez ezagunak belarri fina zeukan eta petate orlegi bat
ongi jotzen zuen pianoa nire ezagunak nahiz eta pianoari
soka bat falta zitzaion ibai izoztuetan
zuloak egiten zituenez amurrainak harrapatzeko
Benetan nik lehengusu txiki bat neukan sarajevon
gaur goizean ikusi dut estreinakoz egunkarian
benetan ikusi dut begi ikatzezkoekin panazko galtzekin
nire lehengusuak aipatu dit gizenduta ote nagoen
kezkaturik dabilela bolada honetan eta
ea hemen ere amurrainak bihotzik gabe jaiotzen diren
Sorbaldaz keinu bat egin diot ez dakidala
amurrainena alfa edota omega izan daitekeela
atorraren azken botoia ondo lotuz gero ez duela
inork bihotza lapurtuko dion beldurrik izan behar

Benetan nik lehengusu bat neukan sarajevon
eta negarrez hasi da edo negarra hasi du
guk garagardo lata bat hasten dugun bezala
eta negar egitean behitu egiten zaizkigu begiak
pianoaren soka zeukan lepoan biribil
ezpainik gabe hitz egiten zidan anaia maitea ez dik
merezi
hemen aspaldi honetan
pianoek ezkilen soinua jotzen besterik ez zekitek

Benetan ni ere izan nintzen sarajevon yashica
kamara batekin
bakea eta ikara esku beretik sustraitzen ziren
atorrak
deslotu eta alferrik
galduz aorta atariko bitartekarien tuneletan

1600

Segundu asko ditun mila eta seirehun segundu
aulki elektriko batean zain egoteko adibidez
lore batzu eskuan ditunala zutik adibidez
zaila dun musu bakarra malgutzea hain luzaro maite
metro asko ditun mila eta seirehun metro
batez ere gaur eta kale urtu hauetan ihesi edo
hire botanikan murgilduz gauaren barne
lorategietan
arratsaren zirujia ebakiz rosa rosae
mila eta seirehun arratoi samaldan
suizidatu hituen atzo pasaiako garabietara
maitasunaren hiru osagaiak batzerakoan
proportzioetan ondo asmatu ez zutelako maite
asko ditun mila eta seirehun arratoi
zorionaren zutabeak hortzez kurruskatzeko
ez al zain hala iruditzen maite
kearen aritmetika urruna estazioetako oholetan
esandako gezur guztiak kontatuz ere
mila eta seirehun gezur
gezur asko ditun
eta ez dun lain elurra azaroko murru izoztuetan

gabardina tirokatuaren odola jelatzeko
metrailaz baheztatua euria
matrailetan mila eta seirehun berun pusketa
berun pusketa gehiegi direla iruditzen zaidan

Bururatzen zait
gernikan gereziondo bat jarri balute
hildakoen egoneza baretzeko gau hausterretan

Merkantziazko furgoiak

Mesprezatzen dut norantza
lanbroak iruzur egin die iparrorratzei
baina ekarridazue argia furgoietan
makinista boxatuak dabiltzanean
ekarridazue argia kutxa bertikaletan
ez daitezela merkantzia bagoiak
egunak bezain hutsik abia lau zeruz seinalatu
burdinazko zubietarantz
ez ditzatela trenbideko marraza zorroztuetan
ezpainak odoltzeraino labandu
hausnar dezatela irribarretik zaurira dagoen
nahigabeko urratsaz
berunezko telefonoen zama imajinarioaz
abiatzeko gero emakume erdibituen geltokirantz
kearen beldurrez surat ihes

Erlojuz gainez

Zenbat erloju dauden hirian
bazter guztietan eta eskumutur guztietan
heriotza dezimalki ezarriaren eusleak
zenbat erloju dauden hirian
eta ez dira lain denak ere beren burdinsareekin
denbora guztia galbahetzeko
zenbat erloju dauden hirian
eta zenbait zepo arratoientzat
segunduen karreiua pisutsuago egunetik egunera
zenbat erloju dauden hirian
eta ez da kabitzen denbora osoa haien mateletan
Begira haraxeago armiarmak beren sareak irentsiz
begira haraxeago euriaren amenazu laineza
begira haraxeago segundu bakoitza
bakardadera suizidatzen bere bihotza
orratzen urkabe publikoan

Begira zertan bihurtu nauzuen

Inork ez daki norenak diren hitzaren lau ertzetara
irristatzen diren malkoak
belarrietako amaraun gogortuak garbitu dizkit
edozein esku harrapatuk
ahanzturaren begiradak itzaltzen ditu oraindik
agortzen doan gauak teilatu matxuratuetan
hareatzan biribildu da mendeku ttipi hori
gorrotoa iraunkorra omen delako mataderoetan
ahaztu al duzue zenbat odol tanta sartzen diren
litro betean
ahaztu al duzue nire eskutitza
oroitzen al duzue nik
katu bat izan nahi nuela
ordea itxuraz hitzak leizetik leizera dabiltza
ez naiz errusoz mintzo ulertu beharko nindukezue
txarrantxa metroka erosiz gero merkeagoa dela
besterik ez al duzue ikasi haragiaren klaustroetan
heriotzaren lugorria ona dela
zalantzan jartzen al duzue
buruz errezitatzen al dituzue kezko alfabetoak

ezpainek gaisotasunari entzun ziezaioketen
erantzun bakarra zein den gogoratzen al duzue gaur
zenbat bihotz sar daitezke zuen zapaten azpian
zenbat zapata zuen bihotzetan
zergatik zaunka egiten dute gau osoan
hilobietako zakilak miazkatzen dituzten zakurrek
ahaztu al duzue zenbat malko tanta sartzen diren
litro betean
zuen senean al zaudete bata zuriak jantzi
ondorenetan
bertikalak al dira zuen alkandoretako marrak
barrendatu al duzue sekula balbearen milaka
abantailez
bere begi bakarraren kolore aldakorraz
eskatuko zenieten noski barkamenik
orduz kanpo nahigabe akatu zenituzten emakumeei
entzuten al duzue zuen tinpano saretuetan
itotzen ari den haurraren birika hotsa
totelka egiten al du argindarrak zuen eskuetan
eraile eta ehorzle bihurtzear hatzak
eta garrantzitsuena
zer egiten duzue animalia hilen begiekin?

zdravitsa
errusoz mintzo naiz begiak erauziagatik

Noizbehinka
abakoak ezagutuko ez bagenitu bezala
biderkaketa taula ahazkorraren moduan
bateko eta besteko
hildakoen zerrenda berritzen digute arbelean
ahaztua ez baina
kontzientziaren alde ketsuenera baztertua
behar genukeen hezur anabasa zimela
noizbehinka
denbora neurtzen duen klepsidrari
milaka akurik aterpeetako
malkoek eragiten diotela oraindik
noizbehinka bakarrik
baina maizegi da noizbehinka
ispilu izan nahi luketen patio leihoetan
egunkarietako egia atzamarrez seinalatuz
berdina omen delako odolaren beltza oro
espaloietako demokraziara estutzean

Noizbehinka
harlauzetan isurtzekotan
odola baino gustokoagoa dugula garagardoa

eta zure bihotza
hotzari erantzuten ez dion telefono gorria
ardotan bustitako musuzapia baino ez dela
gauez zaila baita browning bat colt batetik
bereiztea
urkatzen zaituen sokaren kolorea

Noizbehinka
borondate apur batez
hiltzen ikastea erraza dela
malkoek ito dituztela herri osagabeen
osagabe erien oihu ohiak
odol errekek eragiten dutela oraindik heriotza
neurtzen duen klepsidra laiotza
eta amapola guztiak blaitzen dituztela
itsas biriketan ito diren mariñelen begiek
norbera bere heriotzara ohitzen hasterako

Noizbehinka
odola lehortzen denean
lokatzetik bereiztea zaila delako
kale aukeratuetan zaila kale egitea eta
zure bihotza ere
musuzapi odoldua da eztulka
bala arrazionalaren zain

Erresumarik zabalena

Bizitza da erresumarik zabalena
diote oroiminean leize bat irekiz
zaldien begietako hiztegiek
Bizitza da erresumarik zabalena
erromes oro galdurik bere menditarteetan
nola galdurik itsasoaren bularretara ekia
nola galdurik agonia zure hitzen kariari

Bizitza da erresumarik zabalena
udazkenaren hondar abandonatuetan
gezurraren sonata gosetiak
bere melodia erorkor eta luzeaz
arima hilkorren zingirak arakatzean ere
gregorianozko murru higatuetan
armiarma gotikoak dabiltzanean ere
alabastroak iragazitako argitan
bizitza da erresumarik zabalena

Bizitza da erresumarik zabalena
hosto bakoitza erredura bat gehiago ezpainetan
orratz bat tenk jaioberrien bihotzetan

eskalez mozorroturik mozkorturik zekalez
sekula zoriontsu izan ez direnen
espaloiaren alde hartan
Bizitza da erresumarik zabalena
baina niri ez dit deusik erakutsi
soilik isilik jarraitzen gibeletik
denboraren zakur herrenari

Bizitza da erresumarik zabalena
eta nik
nik besoak baino ezin zabaldu

Haragia eta odola

Odola eta haragia
haragia eta odola
baizik ez gara
ezpara doinu inausia besterik ez gara
gertu hiltzera kondenatuak
leihoak margoturik daude gure hormetan
haragia eta odola baino ez gara eta
odolaren oihartzuna ez da sekula izan elurrarena
Marruan bermaturik dagoen bizikletan
egin nahi genuke ihes
baina bizikletak ere margoturik daude hormetan
odola eta haragia baino ez gara baina
belar bildua bezain eskas den odolbilduaren
hotsari ezin behatuz
besterik sinetsi nahi genuke
amodioa merkezurrean eskaini
zizelkatu poemok herio haragitsuaren ezpainetan
behiala geure izan zen odolaz nahi genuke
ordea launakako diagonalki erdibituz
daude margotuak emakumeak eta poemak gure
hormetan

Odola eta haragia
eta eskubete hazi agian
koxkor daitezen apurka-apurka basamortu berriak

Ez dira sekula betetzen

Nik ere amestu nuen
suizidentzako eraiki ez ziren zubiekin
bentzolaren hodietan itotako 123 hasperenekin
ispiluetan islatzen ez ziren inausketa elurtuekin
hondar aldiko buru makurtuekin bizitzen ikasi nuen
ametsek sarri zulatzen zituzten nire lokiak
egunsentia botila berde baten muturrean
erauzitako sustraiak nire ametsetan ez ziren
gurutzeak
egiteko erabiltzen
beti urrutiegira doazen belauntzien mastak
finkatzeko baino 876
zuhaitzak itsasoetan eta biriketan eroriz
nire ametsetan jende tustoak ez zekien
noren omenez entzuten ziren ezkilak
nire ametsetan etsipenak ez zuen bigarren pisurik
eta ez ziren bihotzetako paretak
poliki-poliki pitzatzen ari zitzaizkigunak
ametsek sarri zulatzen zituzten nire lokiak
baina ametsak ez dira betetzen
hondar eskorga anitzez ez bada

nire ametsetan ez zegoen barrearen urtera heltzeko
falta diren begi eroriak zenbatzen zituen erlojurik
izotza zen irribarreen]urperatzailea
nire ametsetan teilatuetan etesurez
maitasuna ez zen adibidez
leihotik beha zegoen alarguna
ez zegoen nire ametsetan 146
tuneletan ezkutuan negar egitera ekandu zenik
ilargia ez zen laino bat gehiago lainoen artean
eta larrosa gorriak ageri ziren
baina ametsak ez dira betetzen
hondar eskorga anitzez ez bada
hemendik iparrorratz askotara
ospatzen omen du gaur meza bat bizitzak
bere bazkide ohiak omenduz

Ez zen hain zaila nire ametsetan
sufrimenduaren ezpainak musukatzea
zure begiak eta nire begiak
loturik zeuden pita soka batez
ametsek sarri zulatzen zituzten nire lokiak
elurra urrutiegi beti
eta 456 larrosak mesanotxean gorriak
alferrik apaintzen duzu ordea mesanotxea
lurpetik ateratzen dira latsez larrosak
eta lurpea hildakoen esparru ukiezina duzu
lorerik gabe lurperatu zituztenek indartsu oratzen diete
hildako aberatsek baztertutako larrosei
sahara gobi eta basamortu gehiago
ametsak amets direlako
eta ametsak mailu hotsek uxatzen dituzte
lokamutsak itzultzen dira zorroztera
lantzean behin errealitatearen ganibetak
baina ametsak ez
ametsak ez dira betetzen
hondar eskorga anitzez ez bada

ametsak ez dira sekula betetzen
hustu gehienera hegazti lumatuen ospelean
Anartean odola gorria da espaloietan
ametsetako larrosak bezala

Zikutazkoak

Oroiminezkoak ziren urak zikutazko
bilakatu zaizkit eskuartean
Bakardadeak zulatu dit mingaina
Pisu batean erkatuz eromena edo heriotza
eskainiko balizkidate bezala da
ez da aukera erraza
aterki asko ikusten baititut gaur kalean
makina bat kapelu beltz zain zianuroaren
ugaranetik urruntzen desioen hondarretara
jaka ilun asko beren hezurdurak paseatzen
eta haizea nahikeriaren haizea ere badabil
hiri honetan udazkenak hain luzea izaki
hamasei hilabete irauten duela ikusi dut
zapata hautseztatuak ere bai eta zikutazko ibaiak
igarotzen duten zubi bakoitzean geratzeko
esperantzarik galdu ez duten zikutazko ibaiak
itsas brisarak ekarritako astelehenak
norbaiti ostutako zumezko isiltasunaz
eraiki dituzten gau artifizialak
eta saguak eta ogi lizundua ikusi ditut
kalegarbitzaileak zaborra hitza

hiztegietatik errazten
katea hitza ere kendu nahian eromen gozotik
baztertzen heriotzaren hesietara
Ikusi ditut putzuak irakiten eta armiarmak
erdiminez hamasei udazkeneko haurdunaldian
baina batez ere ikusi ditut
jaka ilun asko hezurdurak paseatzen berandu
edo besterik ez bada poliki
hiltzearen sekretua idorotzen gurutzegrametan
sei hizkitakoa laburdura pb
kearen lau ertzetariko batean kizkurturik
haize ikustezina ikusi dut
xuxurlatzen erantzunak burezur deboilatuetan
belarrizulo izandako hutsuneetatik sartuirteeran
Ikusi ditut gauza gehiago ere
bederatzi hizkitakoa sinonimoa desertu
zikutazkoa gure etorkizuna eta zikutazkoak
egunsentiak ilargiko etxekalteetan

Mugak

Hain hiskor diren marrok
gauak berdinduak bere oleo ihesezinaz
ez dituzte errekek lerratzen
urtuz isurian bideko berun txintxarrak
ez dituzte beleek erortzen utzitako lumek
zedarritzen
ez mendiek ez ibarrek ez buhameen karabanek
ez gizakiaren baldartasunak sikira
mapetako marra zarpailok
baioneten zizta errepikatuek edo eta
arrastaka eraman sudarioetatik
banan-banan irristatutako
odol tantek dituzte marraztu
harrapatuz eta itoz
beren pean lore kolerikoen loak
beren pean sasi soslaien lausoak
Baina odolbilduek seinalatutako sasibideak
euriak ditu ezabatzen
euriak dakarren aroa denborak daroa
gaualde susmatzaileetako
arrastiri busti barreiatzailean

Marrok ez dute ulertzen
amore ematen ez duten herri itxurako multzoez
multzo itxurako herri irlatiez
hizkuntzez edo eta
sentimendu itxurako kasketaldiez
Marrok pultsu dardartiz
seinalatu zituen ezein jainko aketok
gure azaletan tatuatuz minaren orbainak
entzun gabe erreken eztarri unibertsalak
deiadarka botatako etsipenaren sinonimoak mila
zakur eta armiarma oro aurki ezinean bila
baina zeren bila
ez al gara ba herri hila?

Marra baten alde batera nahiz bestera
dagoen hura berdina izanik
nola ulertu amildegi izun horien sakona
eta nola konprenitu
zuria eta beltzaren artean dagoen eremu jabege
begiz beha ezinekoak
lerro mugatzailerik ez izana?

Iratzargailua

Gaueko hiruterdietan geldir:ik darraite orratzek
maitasun-lapurren gura du haizeak
Badirudi hogeitalau orduz prestaturiko urkabeak
ez duela biktimarik topatu bezperaren xederan
Buelta eman diot erlojuari
zenbaezina trenbideen kronologia
zubi altxakorretan
oraindik geldirik darraite orratzek
baina badirudi hanka batetik harrapatu dutela
norbait
zaude apur bat
azkenean garbi ikus dezaket nor den
hego bat bestea baino luzeagoa duelako
herrenka dabilen kaioa

Lauetan ikara bere ohizko ubideetara itzulirik
bihotz-lapurren gura du haizeak
Lauak eta hogei direnean denbora ileapaindegi bat
da
eta orratzak izan daitezke adibidez
goroldioa amesten arriskutsuak insomnioarentzat

goizegi zorroztutako guraizeak

Zazpietan egunsentia gibelate itxiak dituen
erakusleihoa da ostera
Bihotz-papurren gura du haizeak
Umeak indioetara dabiltza jolas berriak entseiatuz
enparantza ertzeko lumekin

Zorrak

Zer zor nori
pagatzeko astirik eza
garun lehortuetan kezka geza
gartzelan izan denak esan lezake
gorrotoa besterik ez diet ezer zor
esan lezake askatasuna berekin batera
jaio zela uste duenak
ez dago jainkorik kate gabekorik
jainkoak larruzko sandaliak dauzkala
ez bageneki bezala
esan lezake pesimistak bere sendotasunetik
maitatu ez nituenei zor niena zor diot neure buruari
esan lezake sagar izateko ametsak dituen gereziak
nik ere nahi nuke zizare bat
esan lezake larunbat eguzkitsuetan
aterki fabriketako zarata entzuten duenak
lana da garapenaren sustraia edo
norenak dira itsas bazterreko bihotz-sabai hautsiak
gezurrak hanka motza du baina makulu ugari
gaitza aulkiekin estropozorik
egiten ez duen lapurra da denbora

badoa eta gu harekin
edota auskalo
egiak ez ditu bi bide
baina bidezidorrak anitz
ez dago jainkorik kalte gabekorik
esan ere
ezer esan nahi ez duten
hainbeste gauza esan daitezke
Eta hitzak ez dira kea baino
halere badira zerbait
kearen haginetan usteltzen baita ilargia

Askatasunaren harlauzak

Munduari egin zioten ohizko errebisio batean
zer eta zor bat aurkitu zioten dolar askotakoa
zer egingo diogu inor ez da perfektoa
zor bat aurkitu zioten munduari estolderiatan
ilargiko etxekalteetan ateratako argazki lizunekin
batera
eta orduan zorrez eta zorriz mintzatzen ziren
irratiak
egunkariak eta telebistetako sugandilak
berehala itxaropena kortinen bestaldean
imajinatu genuen itxaroten
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak
ibaiko ura dragatu zuten infernuko perkusioa
miatzeko
munduari egin zioten ohizko errebisio batean
bere gorputzeko zeru ezkutuenean
zor bat aurkitu ziotelako dolar askotakoa
eta orduan hondartza guztiak eta ganbara guztiak
errekisatu zituzten gu ez gara errudunak
guk ez dugu ezer egin esaten zuten denek
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak

etsituta itzultzen ziren etxera langileak
urre bilatzaile menturazale haien desenkantuaz
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak
aspaldi hartan poetek esaldi kopulatibo gehiegi
zerabiltzatela zioten kritikoek
eta hirira ez zen usorik etortzen
ganbarako ametsak gasez fumigatu zituztelako
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak
koartadarik gabe topatu zuten burua galdu zuen i
hura
bere eskuak ebakitzear iturriko amildegian
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak
estolda zuloetatik eta jendearen harriduratik
o ugari errendatu ziren gu ez gara errudunak
guk ez dugu ezer egin esaten zuten denek
ordea errudun bat nahi duenak beti topatzen du
erruduna
sahara gobi eta basamortu gehiagotan
dabiltza oraindik hondarra ihintzarekin fumigatzen
nahiaren eta ezinaren n isurkorraren bila
miatu zuten olatu bakoitzaren erradioa
askatasunaren hiribideari altxa zizkioten harlauzak
harri eta zur geratu ziren arkeologoak
duela mila eta seirehun urte inguru eskuz egindako

itzal eskerga topatu zutelako harlauza puskatuen azpian

pitzadurarik gabe apenas egoera estimagarrian

british museum-era igorri zuten itzal eskergaren lagina

air mail korreo urjentez por avión

ertzetan marra gorri eta urdinak dituzten

gutunazal horietako batean sartuta zorrak kitatzeko

txeke zuri baten itzal gurutzatua

dolarretan of course

askatasunaren hiribideari altxa zizkiotenean harlauzak

Geratuko dena

Hil dira nire hanka-besoak odola
haragia
ez baina negarrik egin maitea
hartu nire begiak eta islatu bertan
zure gorputz zalu biluzia

Hil dira nire begiak
ez baina negarrik egin maitea
hartu nire ezpainak eta ken iezaiezu hautsa
zure xera xaloez laztandu
igali desloratuen muina

Hil dira nire ezpainak
ez baina negarrik egin maitea
hartu nire arima eta ez utzi inolaz
haizeari barreiatzen zureak diren
nire pentsamenduak

Hil da nire arima ere
ez baina negarrik egin maitea
itsaskurkuluen bueltan olatuekin

hor geratzen da nire poesia
irakur ezazu eta alaitu ur berriz
desolamenduaren lats urria
hitz puskatuen orrazeaz
zure menats kordokatua haizatuz

Eta denboraren iraganbide dongeetan
laberinto ohietan pintzelaturiko hitzak
iraganaren keruak ehotzen dituenean
irribarre egin maitea
hil baita nire poesia

Kearen mintzoa

Hitzik gabe nahi nuke mintzatu kerik gabe
teilatuetako tuberkulosia besarkatuz
nahi nuke ohe gainean botatako gabardina bat izan
beira biribilduei lotu lepoa edo whiskyari
eta lurpearen solariumera kondenatua ez banengo
legez
ezpainak maitatzeko neurekoi izateko besterik
erabili ez
Begira itzan leihoetan zapaztutako zebra pasabideak
hau ez dun kuxidadea
begira itzan hedagietan zintzilikatu alkandora
gorpudunak horrelakoak ditun hiri guztiak
zubiak zeharkatzeko direla ahaztua dinate
arkitektoek
mila eta seirehun antzara disekatzen dizkinate
egunero
haien odola moldiztegietara saltzeko
eta gu denok armiarma garen arren poesia ez dun
hiri guztia biltzen duen
amarauna
amaraun horretatik ihesi doan kea baino

inoiz ez dun besarkatuko baina birikak
okituko dizkin
inoiz ez dun bereganatuko baína begiak
behi malkotan desitxuratuko dizkin
ez iezaion fideltasun doirik eskatu baina hago ziur
hirekin etzunen dun zerraldoan
ez iezaion furgoi gehiegi arrastatzerik eskatu
ikatzaren ordez darabilzkien bihotz belunak
errekin eskasegia ditun hain basamortu izanda ere

Sinets iezadan hiri guztiak ditun hau bezalakoak
nik ere ezagutzen dinat berlineko kreuzberg auzoa
eta han ere a ze kuxidadea esaten dinate ama
guztiek
dastatuak dizkinat urruti zaharreko arkabuzak eta
hedeak
eta han ere ikara metrailaz ereindako gordelekua
dun
Laster batere behelainorik gabe geratuko gara
kaioletan daramatelako gauero tabako fabriketara
randebu oro ispiluetan gauzatzen ditun hiri honetan
keak sostengatzen dizkin gure begiak
ez dakigu zer den hiriaren haigun aldean erretzen
ari dena

dena erretzen ote den ere ez
Sinets iezadan ez dun ogi labeetakoa kedar hura
hiri guztietan bezala hiri honetan
gu denok legez goizegi hiltzen dun eguzkia eta
mila eta seirehun antzara akatzen dizkinate
egunsentiero
haien odola poema liburuetan sartzeko

Kearen bestaldetik

Kearen bestaldetik etortzen den
bisitariari gure hirizko tximinietan
deigarri zaion lehen gauza
zubietan klarionaz seinalatu zenbaki horiek
lau zubi besterik ez daude hirian eta
123 456 876 145 bataiatu dituzte lau zubiak
azken zifra beti lainotuagoa
askotan ezabatu eta zuzendu balute legez
zein gutxi dakiten estetikaz eta enparauez
zergatik ez jarri zubiei diktadoreen izenak
hiribideei bezala

Kearen bestaldetik etortzen den
bisitariari gure tximinizko hirian
deigarri zaion bigarren gauza
zubietako inskripzio bitxi horiek
benetan ez dit axola hiltzeak
baina otoi hil nadin urruti
Há una gota de sangue em cada poema
as noites da radio lisboa
edo maite ditut jaioberrien begiak non
hazten baitira kanabixaren basoak

Kearen bestaldetik etortzen den
bisitariari gure hiri txarrantxazkoan
deigarri zaion hirugarren gauza
ibaiadarraren ditiburuetan gereziak hondoratuz
(zubiak zilar paperezkoak beti traidoreentzat)
gorrilunetik ilun gorrira bravo bravisimo
eta zubietan jarri dituzten zaindari zurrunak
opera barregarriak non antzezten diren seinalatuz
inork aurrerantzean txalotu ez ditzan suizidak

Hitzek zionat
malkoek bezala
ezpainetik ezpainera
behar luketela baina
leizetik leizera
dabiltza maizegi
badakin gereziak zuztarretik baino
ezin musuka daitezke ezjakinek
ezin sumo dizkinate desiratu sagarretan ematzen
diren heriotzaren harrak
Etorkizuna iraganerako lasterbide bilakatu
eta bazirudin inork ez duela gogoratzen
hipokresia dela ilargiko nikotina oinezkatzea
aingeru deboilatuen hegoez erdietsia badun
odol tanta bat dagoela poema bakoitzean
edo malko tanta bat berdin dun
edozelan ere tantaka baino ezin
neur ditzaket errugabeak orain nahi haunat
maitatu urruti edo aspaldi ematen din
jitoan dabilen untzia garela
giltza hautsi bat garela

nire biriketako masterian bizi ditun ganbeluak
bestorduz ispilu beltzak
lurperatu genitunan baranoetan
gaur ere kutxarik babestuenak diren
jaioberrien pentsamenduetan
galderak giltzorde alferrikakoak ditun nolanahi
ez dun loratu ezpainik
sarrailek basitutako basamortuetan

Kearen hondarrean dago amildegia

Har itzan hi haiz orain
nire gibelean korapilatzen diren
hontzuntza eta mihuren jabea
har ezan nire pasaportea
argazkia handitu dezaken nahi badun
baina hor ere begiak itxita azaltzen naun
hor ere ibaia uraren brigadek inguratua dager
har itzan kapelua jertse azulmarinoa
zein inperiok ez du borrokatu itsaso puska bategatik
har itzan zigarroak sekula ez diat bat erre
horien baitan egongo dun nire garuneko behelainoa
har ezan hau ere
ez dun hire zain txikitu ninan
telefono gorriskaren entzungailua
sagar izatea amesten zuen gerezia baizik

zein inperiok ez du borrokatu itsaso puska bategatik